

KANBOKO HERRI BILTZARRAREN

2024ko APIRILAREN 15eko

BILKURA AKTA LABURRA

Hor ziren: Christian Devèze, Auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, auzapezordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Corinne Othatcegy, Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Peio Etxeleku, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy, herri biltzarkideak.

Ezin etorriak: Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe, Carmen Gonzalez, Jean-François Lacosta, herri biltzarkideak.

Ahalordeak: Jean-Jacques Lassus-ek Vincent Goytino-ri; sabelle Ayerbe-k Yolande Huguenard-i; Carmen Gonzalez-ek Christiane Hargain-Despéries-i; Jean-François Lacosta-k Peio Etxelekuri.

- Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Jean-Paul Eyherachar jauna izendatu dute saioko idazkari izateko.

Herri biltzarkideen kopurura	29
Presente diren herri biltzarkideak.....	25
Ahalorde kopurua.....	4
Hor ez diren kopurua.....	4

– Solasgaiak:

001 – Herri Biltzarraren deitzeko urgentziatzeko izatearen balioespena.....	2
002 – Erasoen biktimak diren auzapez eta hautetsiei sostenguzko mozioa	2
003 – 2024ko otsailaren 28ko Herri Biltzarraren aktaren onespena.	4
004 – AGAZ: herriko haurrek UDAZ LEKURa joateko finantzazio hitzarmena.....	5
005 – Tokiko zergak: tasen finkatzea.....	5
006 – Itzuli beharreko aurrerakina Artzamendi XBHASen alde.	8
007 – Elkarreentzako dirulaguntzak.....	10
008 – GEUZarentzako dirulaguntza.....	13
009 – Eskolen Kutxarentzako dirulaguntza.	13
010 - Hautetsien urteko sariak.....	14
011 – Finantzak: kredituak atal batetik bestera pasatzea - M57..	14
012 – Aurrekontu nagusia: 2022ko emaitzaren esleipena.....	15
013 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2023ko emaitzaren esleipena.	16
014 – Aurrekontu nagusia: 2024ko hasierako aurrekontuaren bozkatzea.	17
015 – 2024ko Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (PB/OK - AP/CP).....	22

016 – Programa Baimenak eta aurreikusi ez diren gastuen esparruan Engaiatzeko baimenak.	23
017 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2024ko hasierako aurrekontuaren bozkatzea.	24

001 – Herri Biltzarraren deitzeko urgentziazko izatearen balioespena.

ERABAKIAK:

Auzapezak Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2121-12 artikulua gogora ekarri du zeinak xedatzen baitu 3500 biztanletik gorako herrietan Herri Biltzarra deitzeko epea bilkura baino gutxienez hamabost egun osokoa izan behar dela.

Urgentzia kasuetan, Auzapezak epea laburtu dezake baina gutxienez egun oso batekoa izan behar du.

Herri Biltzarraren saio hasieran Auzapezak horren berri eman eta Herri Biltzarrak urgentzia egoera den ala ez erabaki behar du, eta eztabaidak osoki edo partzialki beste data batera gibelatuz ditzake.

Aipatu xedapenak segituz, Herri Biltzarkideei deia igorri zaie 2024ko apirilaren 12an, hots 2024ko apirilaren 15eko biltzarraren ez ohiko saioa baino bi egun lehenago.

Auzapezak adierazi du bilkura horren urgentzia 2024ko apirilaren 10ekoa bertan behera utzi behar izanari lotua dela, eta Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.1612-2 artikulua finkatzen duelako aurrekontu kontu ekitaldiko apirilaren 15a baino lehen bozkatu behar dela, eta hori betetzen ez bada Departamenduko Prefetak Eskualdeko Kontuen Ganberara jo dezakeelako.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak, aho batez:

ONETSI DU Herri Biltzarra urgentzian deitzeko prozedura.

002 – Erasoen biktimak diren auzapez eta hautetsiei sostenguzko mozioa.

ERABAKIAK:

Auzapezak honakoa aurkeztu du:

Tokiko hautetsien kontrako mehatxuak eta indarkeriak etengabe emendatzen ari dira azken urteotan eta bereziki azken hilabeteotan.

2021 eta 2022 artean jakitera eman diren hautetsien kontrako indarkeriak %32 emendatu dira. Frantses estatu mailan joera nabarmena da: 2265 kasu erregistratu dira 2022an eta 2387 2023ko azarora arte, hots %15eko emendatzea 2022 eta 2023 artean.

Frantziako Auzapezen Elkartearen arabera, biktima diren 10 hautetsietatik 6 auzapezak dira, eta 10 kasutik 7 irainak eta mehatxuak dira. Datu horiek ez dira exhaustiboak, kontuan izanik hautetsi askok ez dituztela seinatzen jasan dituzten erasoak.

Auzapezen eta hautetsien kontrako indarkeria hori hiritartasun krisi baten adierazleak dira eta aginte publikoaren ordezkariak nola langile publikoak dute jasaten.

Indarkeria kasu horiek, izan fisikoak edo ahozkoak, onartezinak dira. Tokiko hautetsiek beren mandatua bete behar ahal dute Errepublikaren balioen errespetuz.

Oharpen hori eginik, 2024ko apirilaren 15ean Kanbon bildu diren Herri Biltzarkideek aho batez diote Pirinio Atlantikoetako auzapezak eta hautetsiak sostengatzen dituztela eraso fisikoak, ahozkoak jasaten dituztelarik edo jazarpena bizi dutelarik nahiz eta kasuak ez ezaugarrituak izan, zeren beren mandatuaren funtzionamenduari traba egiten baitiote. Lurralde erakunde baten kudeaketa berez jada aski pisua da, eta ezin dezake jasan bere hautetsien kontrako giro kalapitatsu eta gatazkatsurik.

Horregatik, Kanboko Herri Biltzarrak:

- **Irrotasunez gaitzesten ditu** hautetsi eta langile publikoen kontrako indarkeria onartezinak,
- **Berresten ditu** Frantziako Auzapezen Elkartek bideratu dituen ekintzak eta lankidetzak honakoekin: France Victimes eta Frantziako Barne Ministerioa, Polizia nazionala eta Jendarmeria.
- **Pozten da** 2024ko martxoaren 14an behin betiko onartu den hautetsien segurtasuna eta auzapezen geriza indartzen dituen lege proposamena, bereziki kargu publiko baterako hautagai direnen bizi pribatuari eraso egiteagatik zigor bidezko errepresioa, eta indarkeria, mehatxu edo irainak jasaten dituzten auzapez eta ordean geriza funtzional automatikoaren onartzea.
- **Dei egiten die hautetsi eta herritar guziei** agintaldia modu lasaitu eta partekatuan segitzera, bertako ekintza publikoa hurbileko zerbitzuen onerako izan dadin, kohesioaren eta elkarbizitzaren alde.

Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberaturik, Herri Biltzarrak gehiengoz:

ONARTU DU Erasoen biktimak diren auzapez eta hautetsiei sostenguzko mozioa.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

Abstentziora jo dutenak: Jean-Paul Alaman, Peio Etxeleku, Jean-François Lacosta.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak Herri Biltzarraren iritzirako uzten du Frantziako Auzapezen Elkartearen mozioa.

Hiriart-Urruty andereak Nahi Dugun Herria taldearen izenenean hartu du hitza:

«Lehen lehenik, pozten gara Auzapeza osasun onean baita, egiazki.

Apirilaren 10eko herri biltzarra gogorra izan da denentzat.

Gertatu den oldar mediatikoa, haren amalgamak eta hedabide anitzetan eman diren hitz okerrak berriz aipatu nahi ditugu, gertatutakoa itxuraldatzen baitute. Fenomeno hori oso kezkarria da eta salatzen dugu.

Halaber, harrituak gara politikan trebatuak diren gizon eta emazte zenbaitek sare sozialetan utzi dituzten iruzkinekin. Brisson jaunak “Kanboko udal bizia jada zenbait hilabetez usteltzen ari diren errabiatuak” izan ditu hizpide. Frantziako Auzapezen Elkarteko Lehendakari Guérin jaunak dio “extremista batzuek Devèze jauna indarrez erasotu” dutela.

Hautetsien egitekoa al da oldar horrekin bat egitea?

Herriko Etxearen webgunean irakurri ahal izan dugu: "Kontrako jende batzuen nahitako indarkeriak herriko auzapeza lurrera bota du eta buruan zauritua izan da".

Auzapeza bera 2024ko apirilaren 14ko Sud-Ouest egunkarian horren kontrara mintzo zen. Erraten zuen ongi zegoela, ez dela hemen gertatutakoaren eta beste lekuetako gertakarien arteko amalgamarik egin behar, eta laborariak ez ziren bertaratu eraso fisikoa egiteko xedearekin. Ez da izan gatazkarik haien eta gure artean.

Izan ere, laborarien asteazkeneko ekintza indarkeria gabea zen. Ez ditugu estigmatizatu edo kriminalizatu behar. Beren lan-tresna defendatzera jinak ziren”.

Onartzea proposatzen diguten mozioak frantses estatuan 2021etik seinalatu diren hautetsien kontrako indarkeriak erreferentziatzen hartuz hautetsi eta udal langileen kontrako indarkeria onartezinak irmoki gaitzestera deitzen gaitu.

Eman diren zenbakiak irainak, heriotza mehatxuak edo Saint-Brévin-eko auzapezaren etxearen kontrako sutea biltzen dituzte.

Halako mozio bat bozkatzera apirilaren 10eko Herri Biltzarra eta sei egunera, ez al da amalgama egitea?

Gu saio hartan ginen, gertakarien lekuko ginen, eta uste dugu mozio hori ez datorrela bat asteazkeneko gertakariekin. Horregatik ez dugu bat egiten mozio proposamen horrekin.

Bestalde, mozio horrek dei egiten die hautetsi eta herritar guziei agintaldia modu lasaitu eta partekatuan segitzera, bertako ekintza publikoa hurbileko zerbitzuen onerako izan dadin, kohesioaren eta elkarbizitzaren alde.

Hitzetatik harago, bada garaia lurraldeko hautetsiek elkarrizketa eta ideien trukaketa onar dezaten, gure ama-lurraren zaintzaren arazoari aurre egiteko, eta bistan dena, lan hori laborariekin batera eginez.

Horregatik ez dugu mozioa bozkatuko»

Peio Etxeleku jaunak adierazi du aitzineko Herri Biltzarrean ez zela hor familia arrazoiengatik, eta Auzapeza zoriondu du bezperan eman zuen elkarrizketa eraikitzailearentzat. Berretsi du ezinbestekoa dela giroa lasaitzea eta elkarrizketa eraikitzailea sustatzea. Nahiz eta mozioaren funtsa ez duen zalantzan ematen, bozketa denboran eta gertakarien artean non kokatzen den galdezkatu du, beldur baita, Nahi Dugun Herria bezala, gertakarien arteko amalgamak ez ote duen giro baketsua kaltetuko. Arduraz jokatzera eskatzen du, giroa okertu ez dadin.

Auzapezak oroitarazi du mozio hori beste herri askok bozkatu dutela, baita Pirinio Atlantikoetako auzapezen Biltzarraren Administrazio Kontseiluak ere 2024ko martxoaren 29an. Zehaztu du ez diola erreferentziarik egiten iragan asteko Herri Biltzarraren saioari. Ez du amalgamarik ikusten mozioa irailean bozkatzeko, eta azpimarratu du Frantziako Auzapezen Elkarteak interes berezia agertzen duela hautetsientzat eta mozioa bozkatzeko duten herrien zerrenda egiten ari dela. Iragan astean bozkatu izan balute, ez zuen orain bozkara proposatuko.

Peio Etxeleku jaunak erran du pertsonalki nahiago lukeela mozioa irailean bozkaraztea gaurko urgentziazko Herri Biltzarrean baino. Joan den asteazkenean landu ez ziren puntuak jorratu behar dituen saio honen urgentziazkotasunaren eta mozioaren arteko aldiberekotasunak ez eroso uzten du. Mozioak egutegian duen lekuak arazoa sortzen dio.

003 – 2024ko otsailaren 28ko Herri Biltzarraren aktaren onespena.

ERABAKIA:

2024ko otsailaren 28ko saioaren akta Herri Biltzarraren bozkara eman da.

Herri Biltzarrak, eztabaidatu eta gero, aho batez:

ONARTU DU 2024ko otsailaren 28ko Herri Biltzarraren Akta.

004 – AGAZ: herriko haurrek UDAZ LEKU joateko finantzazio hitzarmena.

ERABAKIA:

Aristizabal andereak, auzapezordea, oroitarazi du Errobi lurralde eremuko herriek erabaki zutela herritik kanpo aisialdi zentrora joaten diren haurrentzako diru parte hartze baten adosteko.

Haur bakoitzeko eta egun bakoitzeko 10 €tan finkatu zen.

Aristizabal andereak Herri Biltzarrari proposatu dio UDA LEKU elkartearekin hitzarmen baten izenpetzea, eskola-oporretan herriko haurrak hartzen dituelako. Honakoak dira hitzarmenaren baldintzak:

- Hainbat finantzazio ukan eta elkartearen gain ordaintzeko gelditzen diren kudeaketa gastuetan parte hartzea: 10€ haur eta egun bakoitzeko.

Hitzarmena urtero berez eraberrituko da, aldeetako batek aldaketarik eskatzen ez badu.

Aristizabal anderearen azalpenak entzun eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU Kanboko haurrek UDA LEKU elkartera joateko finantzazio hitzarmena.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari hitzarmen horren izenpetzeko eranskinean agertzen den bezala, baita erabaki horren egikaritzeko beste dokumentu oro.

005 – Tokiko zergak: tasen finkatzea.

ERABAKIA:

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio lur funts eraikien zergaren (FEZ/TFB), lur funts eraiki gabeen zergaren (FEGZ/TFNB) eta bigarren etxebizitzien gaineko bizitegi zergaren tasak onartzea.

Oroitarazi du 2023an honako tasak zeudela indarrean:

- Lur funts eraikien gaineko zerga (FEZ/TFB): %25,55
- Lur funts eraiki gabeen gaineko zerga (FEGZ/TFB): %26,71
- Bizitegi zerga (BZ/TH): %11,67

Familien gain diren 3 zerga tasen bilakaera kalkulatzeko, aurreikusitako inflazio tasa kontuan hartzen da, hots %2,60.

Bizitegi zergari dagokionez, Frantziako 2024ko finantza legeko 151 artikulua Bigarren Etxebizitzien Bizitegi Zergaren (BEBZ/THRS) tasaren emendatzeko salbuespen dispositibo berria ezarri du herri eta herri elkargoen alde, baina baldintza batzuekin.

Tasak partzialki deslotzeko neurria balia dezakete BEBZ tasa aitzineko urtean departamendu osoan ezarri zen zerga horren batezbestekoaren %75etik behera duten herriek. Irizpideetan sartzen diren herriek BEBZ tasa batezbesteko horren %5eko langan emenda dezakete.

Honakoak dira 2024ko kalkulua egiteko elementuak:

- 2023an departamenduan eman zen batezbesteko zerga tasa: %16,78;
- Departamenduko batezbestekoaren %75ko tasa: %12,59 Kanboko %11,67ko BEBZ tasa baino gorago (= %11,67 + inflazioaren %2,60), ondorioz, gure herria irizpideetan sartzen da;
- departamenduko batezbestekoaren %5ari dagokion tasaren zatia: 0,839 puntu.

Honakoa litzateke 2024ko BEBZ tasa berria = (%11,67 + %2,6) + 0,839 puntu = %12,81 baina %12,59era mugatua, hots departamenduko batezbestekoaren %75.

Horiek horrela, eta hasierako aurrekontuan eman den fiskalitate sartzea kontuan izanik, Herri Biltzarrari proposatu zaio 2024ko tasa honela egokitzea:

- Lur funts eraikien gaineko zerga (FEZ/TFB): %26,21
- Lur funts eraiki gabeen gaineko zerga (FEGZ/TFB): %27,40
- Bizitegi zerga (BZ/TH): %12,59

Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberaturik, Herri Biltzarrak gehiengoz:

HONELA FINKATU DITU: 2024ko zerga tasak:

- **Lur funts eraikien gaineko zerga (FEZ/TFB): %26,21**
- **Lur funts eraiki gabeen gaineko zerga (FEGZ/TFB): %27,40**
- **Bizitegi zerga (BZ/TH): %12,59**

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari erabaki horren egikaritzeko behar diren dokumentuak izenpetzeko.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy, Peio Etxeleku, Jean-François Lacosta.

HITZ HARTZEAK:

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea kalkulua egin ote den bigarren etxebizitzaren gaineko zergan %60 gehieneko tasaren eragina neurtzeko.

Auzapezak erantzun dio ez dela halako kalkulurik egin gehiengoko taldeak ez duelako nahi halako neurririk hartu.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak jakin nahi du zergatik ez duten nahi.

Auzapezak ihardetsi dio herriak ez duela tresnarik ez eta behar diren elementurik bigarren etxebizitzaren gaineko zerga kalkulatzeko. Gaia lantzen ari dira eta Euskal Elkargoko zerbitzuen erantzun batzuk jadanik ukan dituzte. Informazio pertinateak ukanen dituztenean, bereizketa egiten ahalko dute termetarako bigarren etxebizitza eta bigarren etxebizitza espekulatiboaren artean. Aitortu du balitekeela %60a ez aplikatzea eta erabakia datu guztiak ukan-eta hartuko dutela.

Argitxu Hiriart-Urruty anderearen ustez, elementuak ez ezik borondatea eskas dutela, zeren egin zezaketen herri guztiak egin baitute kalkulua, horrek erran nahi du behar diren elementuak badituztela.

Auzapezak baieztatu du borondate eskasa Kanboren terma berezitasunari lotua dela. Termalismoari buruzko jardunaldietan izan diren eztabaidak hartu ditu adibidetzat. Frantziako parlamentariak antzeko problematikak izan dituzte aipagai. Azpimarratu du parlamentari frantsesak berezitasunez jabetuak direla, baita landa eremuko aterpeen kasuan ere. Esperantza du Kanboko berezitasuna ere kontuan hartuko dutela, bereziki bigarren etxebizitzaren definizioari dagokionez, 18 eta 21 eguneko epearen arabera, eta dagokion fiskalitateaz. Aitzinean eman ditu terma jardueraren pisu ekonomikoa eta eragiten dituen enpleguak.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak azpimarratu du argudioak errepikatzen dituela, eta bigarren etxebizitzan gaineko zerga bat ezartzea akuilagarria izan zitekeela sasoiko etxebizitzak etxebizitza iraunkor bilakatzeko, Kanbok duen behar bati erantzuteko

Auzapezak ihardetsi dio sasoiko etxebizitzak ezinbestekoak direla kuristentzat eta haien laguntzaileentzat. Gainera, Chaine Thermale du Soleil enpresa Kanbora iritsi zenean hautetsiek uko egin zioten bizitegi horietako irabaziak termetako ustiatzailearen kontura joateari, lurraldeko alokairuen sustatzeko. Zehaztu du iraupen luzeko alokairuak 10 hilabetekoak eta menturaz urte bete baino gehiagokoak izan daitezkeela, eta berezitasun hori molde koherentean txertatu nahi dutela behin zenbakiak ukan-eta. Berretsi du ez dutela espekulaziorako alokairuak atxikitze asmorik.

Auzapezak oroitarazi du etxebizitza hutsen gaineko zerga zuzenbide arrunteko baldintzetan aplikatzen dela gure herrian, hots %17 lehen urtean eta %34 bigarren urtetik goiti.

Peio Etxeleku jaunak ezadostasuna adierazi du zerga tasen emendatzeaz, azpimarratuz simulazioak 2023ko oinarrian bermatzen direla, jakinez %3,9 gorago zuzenduko direla. Azaldu du zerga zerbitzuek helarazi duten 1259 agiriaren arabera, 2023ko tasak mantenduz igurika daitekeen etekin fiskala eta oinarri efektua kontuan hartuko ez lukeen tasen emendatze batek eman dezakeena antzekoak direla. Ondorioz, tasak emendatuz zergen emendatzea bikoiztuko lukeela, zeren tasa-efektua oinarri-efektuari gehituko baitzaio. Argudiatu du oraingo tasek ez dutela kontuan hartzen oinarri-efektuari aplikatu zaien inflazioaren emendatzea, eta ondorioz ez da zergak emendatzearen aldekoa.

Auzapezak lur funtsen zerga eta bizitegi zerga ordaintzen duten Kanboko biztanleei buruzko xehetasunak eman ditu. Lur funtsen zergarentzako, 3 466 zergadunen artean %6,7k dispentsa ukan dute. Errentaren gaineko zergadunen erdiak ez du lur funtsen gaineko zergarik ordaintzen. Lur funtsen zergaren xehetasunak eman ditu jarraian, eta ohartarazi du zergadunen erdia baino gehiagok 400€ baino gutxiago ordaintzen duela. Ondorioz, %2,60 emendatzeak zergadunen erdia baino gutxiagori eragingo lioke, 10€ko emendatze batekin gehienez. Herriko aurrekontuan izango lukeen eragina 60 000€koa litzateke, nagusiki lur funtsen zergaren emendatzearengatik.

Peio Etxeleku jaunak ohartarazi du herriaren eta herri elkargoaren arrazoimena berdinak direla zergen emendatzea justifikatzeko. Kezka adierazi du tokiko, departamenduko eta elkargoko zergen emendatzeak metatzen baitira, baita beste gastu batzuenak hala nola urarenak eta UIKUPenak, hori dena ekonomia-testuinguru zail batean. Tokiko erakundeen kudeaketa eta enpresena alderatu ditu. Ekonomia-krisi egoeran dirua aurreztu behar da zergak emendatzea aurreikustea baino lehenago. Gastuetan eragitea biharamuneko uzten duen politika fiskala kritikatu du. Bere ustez indar gehiago egin zitekeen gastuen murriztean zergak emendatu aitzin, bereziki familia ugari ekonomia-krisia jadanik pairatzen dutelarik, pobretze mailen igoerak eta elkartasun elkarteetara jotzen duen jende kopuruaren emendatzea ikusirik.

Auzapezak ez du onartu bere zerga politika Elkargoarenaren antzekoa dela erratea. Azpimarratu du proposatu duen funtsen zergaren emendatzea, zeina jabeen %54entzat 10€tik beherakoa den, aski mugatua dela. Argudiatu du beste egitura batzuek, UIKUP eta Euskal Elkargoa, beren aurrekontuak emendatu dituztela, eta ondorioz lur funtsen gaineko zergaren herriko zatia emendatzea gauza onargarria dela. Herri Biltzarkideei proposatu die Kanboko tasak inguruetako herrietakoekin konparatzea, non tasa altuagoak ezarri baitituzte. Bukatu du erranez, emendatze mugatua dela eta jabeentzako jasangarria, bereziki gehienez 400€ko zerga dutenentzat, zeren eta horientzat emendatzea gehienez %10ekoa izanen baita.

006 – Itzuli beharreko aurrerakina Artzamendi XBHASen alde.

ERABAKIA:

Didier Irastorzak, auzapezordea, honakoa aurkeztu du:

Ikusirik, Frantziako moneta eta finantza kodeko L511-5 artikulua, zeinak debekatzen baitio, kreditu erakunde edo finantzazio sozietatea ez den pertsona orori modu ohikoan kreditu eragiketak egitea, ondoriozta daiteke tokiko erakundeek eta haien elkargoak ezin diotela mailegurik eman beste pertsona publiko bati diru truke;

Halere, jurisprudentziaren arabera aurrerakinak onar daitezke, modu ez ohikoan, honako baldintza guztiak baterik:

- interes publikoa (Frantziako Estatu Kontseilua, 2000ko maiatzaren 31a, Dunkerque hiria);
- mailegu emailearen interes propioa (Frantziako EK, 1980-05-23, Évaux-les-Bains) ;
- aurrerakina ematen duen erakundeak bere aurrekontuan aurreikusia izan behar du (Marsellako Administrazio Dei Epaitegia, 2001-04-3, Alpes-de-Haute-Provence departamenduko prefeta);
- aurrerakina urririk eskaini behar da (hots, interesik gabe).

Artzamendi XBHASeko 2022ko abenduaren 9ko estatutuen 11. artikulua arabera «Sindikatu batzordeak eskumena du urtero Artzamendi XBHASeko kideek ordaindu beharko duten ekarpena finkatzeko, irizpide objektiboetan oinarriturik»;

Artzamendi Sindikatu Batzordeak 2024ko apirilaren 4an hartu 04-04-2024-001 erabakia ikusirik, zeinak herri bazkideei hiru urtez itzultzekoa litzatekeen 215 000 €ko aurrerakina eskatzen baitzien, herri bakoitzaren aurrerakina jantokian duten haur kopuruaren arabera zehaztu da. Sindikatu batzordeko kideek onartu dute irizpide hori atxikitzea herri bakoitzak egin beharko duen aurrerakinaren zenbatekoa zehazteko. Horiek horrela, banaketa honelakoa izanen da:

Herria	Izena eman duten haur kopurua	%	Aurrerakina
Kanbo	1 100	% 73,33	157.666,67 €
Itsasu	215	% 14,33	30.816,67 €
Ezpeleta	130	% 8,67	18.633,33 €
Luhuso	55	% 3,67	7.883,33 €
OROTARA	1.500	%100	215.000,00 €

kontuan izanik, 2021 arte XBHASak zituela sukalde zentralaren eta Kanboko eskolen jantokiko inbertsioak bere gain hartzen, Jantegi Elkarteak honakoak zituen bere gain:

- Kanboko eskoletako haurren eta XBHASako herri bazkideetako apairuen jardura (langileria gastuak eta gastu arruntak, bazkarien prestatzea, familien ordainketak jasotzea);
- eta beste eskola batzuentzako apairu zerbitzua (Hazparne, Ainhua, eskola pribatuak...) eta beste egitura batzuk (adinekoen egoitzak....).

Kontuan izanik, Artzamendi XBHASak Jantegi elkartearen jardura osoa bere gain hartu nahi izan duela eta bide batez dena bateratzeko. Jantegi elkarteak 2022ko abenduaren 31an desegin zen. XBHASak jantegi jardura bere gain hartu du 2023ko urtarrilaren 1etik goiti.

Kontuan izanik, XBHASaren ekonomia-egoera aldi baterako hertsatua dela, eta aurrerakinak ahalbidetuko diolako bere zerbitzua ematen segitzera.

Kontuan izanik jurisdikzioen baldintza guztiak betetzen direla:

- XBHASaren jarduerak herri bazkideetako hurrei eskaintzen zaizkien apairuen kalitatea duela helburu;
- Herriak XBHASaren jarduera sostengatzeko interesa du, herriko eskola jantokia baldintzatzen duelako;
- Aurrerakina 2024ko aurrekontuko 2745 kontuan txertatua da;
- XBHASak diru hori itzuliko du azken euroraino inongo interesik gabe.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

BAIMENA EMAN DU 2745 kontutik 157 666,67 €ko aurrerakina isurtzeko; zenbatekoa hiru urtez itzultzekoa izanen da (isurpena egin den urtebetetze egun bakoitzean, 2025-2026-2027);

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari erabaki horren egikaritzeko beharrezkoa den guztia egiteko;

ZEHAZTU DU Auzapezak Herri Biltzarra jakinean atxikiko duela Artzamendi XBHASak bere engaiamenduak betetzeaz.

HITZ HARTZEAK:

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea egoera ez ohikoa den ala XBHASaren ohiko funtzionamendua halakoa den.

Didier Irastorza jaunak azaldu du ez ohiko egoera dela, 2022ko irailean Jantegi elkarteak eta Artzamendi XBHASak bat egin zutenetik. Dagoeneko, XBHASak du jantegia osoki kudeatzen. Bateratzeak gastu gehigarriak eragin ditu, bereziki Xalbador kolegioarentzako langileria kontratatzeko, eta 350 000 €ko mailegu batengatik sukaldeko materiala erosteko. Gainera, lehengaien prezioak igo direnez, gastuak ere. 2023ko urtea berezia izan da langileria gastuentzat, zeren bateratzearekin 15 hilabete soldata kontuan hartu behar izan baitira 12ren orde, eta horrek gastuak emendatu ditu.

Artzamendi XBHASaren diru iturri bakarrak bazkariak dira, zeinei gehitu behar zaizkien XBHASeko herri bazkide bakoitzaren funtsen gaineko zergaren "sindikatu" deituriko zatia. Diru arazoan aitzinean, XBHASak bazkariaren prezioa 50 zentimoz emendatu behar izan du, iaz jadanik 10 zentimo emendatu eta gero.

Nathalie Aïçaguerre andereak galdetu du zenbatekoa den bazkariaren prezioa.

Didier Irastorza jaunak ez daki zehazki zenbatekoa den bazkariaren prezioa, baina halere erran dezake inguruko herriek ordaintzen dutena baino merkeagoa dela.

Auzapezak aitortu du erronkak badirela, bereziki Jantegi elkartetik XBHASerako trantsizioa, eta Xalbadorren egin lanak eta inbertsioak. Azpimarratu du egitekoak izanen diren doikuntzetan zuzentasunez egin beharko direla, herri batzuk zergapetuak ez izanik ere. Diru egoerari aurre egiteko hiru urtez itzultzeko aurrerakina aterabidea da.

Didier Irastorza jaunak Hazparne bezalako herriak izan ditu aipagai, Artzamendi XBHASeko bazkide ez direnak, baina eskola jatetxearen zerbitzuak baliatzen dituztenak. Herri horiek ez dute funtsen zergaren bidez diru ekarpenik egiten. Azpimarratu du herri horietan bazkariaren prezioa emendatu badela ere, horrek ez duela XBHASako bazkideen aldean ekarpen orekaturik konpentsatzen.

Jean-Paul Alaman jaunak jakitera eman du irailean BIZIk formakuntza bat antolatuko duela lurralde erakundeentzat. Formakuntzaren xedea da hautetsiak ekologia, eta elikadura-

osasunaren gaiei sentsibilizatzea, eta eskola jatetxeetan produktu osasungarriago eta biologikoagoak erabiltzeari. Nahiz eta horrek ez duen oraingo gaiarekin harreman zuzenik, ekimenaren garrantzia azpimarratu du, elikaduraren bidez haurren osasuna zaintzeko bidean.

Didier Irastorza jaunak azpimarratu du Artzamendi XBHASaren jantegiak jadanik produktu biologiko eta bertako anitz erabiltzen duela BIZIren eskuhartzerik gabe. Zuhurtziaz jokatu luke kanpoko erakunde batek emaniko aholkuekin, bereziki erakunde horrek eskola jantegien errealitatea ezagutzen ez duenean.

007 – Elkarteentzako dirulaguntzak.

ERABAKIA:

Herri Biltzarrak, azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ERABAKIDU 2024 urterako honako elkarteei dirulaguntzak ematea, 335 825 € zenbateko orokor batekin:

Petanka lagunartea	460 €
Kanbo judo	1 100 €
Kanboarrak	6 160 €
Kanboko izarra	8 630 €
Mendiz mendi	530 €
Igeriketa kluba	700 €
USC rugby	9 230 €
Sukil'hand	4 100 €
Tenis kluba	1 940 €
AIEC	10 500 €
Arraga	1 290 €
Batterie Fanfare KI (funtzionamendua)	560 €
Batterie Fanfare KI (ospakizunak)	800 €
Zinema	9 000 €
Behereko plazako besta komitea	6 100 €
Gaineko besta komitea	10 650 €
Emitza	550 €
Gau eskola	800 €
Kanboko harmonia	6 300 €
Jeikadi	2 600 €
Arnagako lagunak (funtzionamendua)	1 000 €
Arnagako lagunak (helburu kontratua)	2 000 €
Musikarentzat	230 €

Musikarentzat (ez ohiko laguntza)	250 €
Sukila + erraldoien festibala	530 €
Topatopia	770 €
UCAC - Merkatari eta ofizialeen Batasuna	3 500 €
ACCA	510 €
AHSM	500 €
PG CATM elkarte	540 €
Adiskidantza elkarte	1 200 €
bixkotxaren kofradia	1 620 €
Kanboko Gurutze Gorria	1 620 €
FNACA Kanbo	430 €
Suhiltzaile gazteak	520 €
Coopcinelle elkarte (ikasgela berdeak)	1 500 €
Premiers pas elkarte	750 €
Errobi ikastola	1 100 €
Eskola publikoetako guraso-elkarteak	1 860 €
Andere Maria eskolako guraso-elkarte	880 €
Kanboko ikasleak	1 210 €
Euskaltzaindia	395 €
Alliance 64	195 €
Frantziako Elbarrituen elkarte	270 €
CIDFF – Departamenduko Genero Berdintasuna (AEFH 64)	375 €
Essor Basque	3 500 €
Euskal Haziak	185 €
Eusko Ikaskuntza	100 €
Familles rurales	430 €
Ravel festibala	2 100 €
Gauargi	500 €
Gure Irratia - Entzun Ikus	540 €
Hemen Elkarte	110 €
Ikas bi	140 €
Intregazio Batzordea	560 €
Ose – Urt Velo 64 (Handival)	300 €
Restos du cœur	640 €
Sokorri Katolikoa	500 €

	Téléthon	215 €
	VMEH (Ospitaleetako Eriei Bisitak egiten dituen elkarte)	50 €
	Itsasuko Xapata	200 €
	Turismo Bulegoa	220 000 €
	OROTARA	335 825 €

Bozkatu diren zenbatekoek bat egiten dute aurrekontu baimenekin.

HITZ HARTZEAK:

Amaia Beyrie andereak ohartarazi du Arnagako Lagunak elkarteak bi dirulaguntza handi eskuratu dituela, eskaera txostenik aurkeztu gabe. Xehetasunak eskatu ditu helburu eta baliabide kontratuaz, baita haren testuinguruaz eta xedeaz.

Eliane Aizpuru andereak azpimarratu du ez dela eskaera txostena aurkeztu ez duen elkarte bakarra. Adibide gisa eman ditu Behereko Plazako besta komitea eta Suhiltzaile Gazteen elkarte, baina zehaztu du elkarte horien beharrak hurbiletik segitzen dituztela. Azpimarratu du irizpide nagusia elkartearen xedea dela, eta zehaztu du aitzineko urtean bezala dirurik ez dutela ematen txostena eskuratu arte. Aitzineko urtean komunikazio eskasa aurpegiratu bazen ere, aurten ere elkarteek ez dute abisurik ukanen. Dirulaguntza nahi badute beren kabuz aurkeztu behar dute txostena.

Robert Poulou jaunak adierazi du Arnagako Lagunen elkarteko lehendakaritza hartu duela lehengo presidenteak iragan apirilean kargua utzi eta gero, eta ez zekiela dirulaguntza txostena aurkeztu behar zenik. Herriko Etxea eskertu du bere sostenguarentzat, eta bidean diren proiektuen artean aipatu du Rosemonde Gérard-ek bere senarraz egin zuen liburuaren berrargitalpena, zeina Arnagako dendan salgai izanen baita.

Auzapezak oroitarazi du urtero 2 000 €ko moltxa bat proposatzen dutela proiektuen diruztatzeko. Diru hori Arnagako Lagunek baliatzen dute beren aurrekontua osatzeko. Azpimarratu du egiteko manera hori urtez urte errepikatzen dela, eta aukeren kudeaketa Poulou jauna bezalako jendeen eskuetan dela, herriaren eskuetan baino.

Amaia Beyrie andereak berrargitaratzen diren liburuen etekinak zertara bideratzen diren galdetu du; alegia, ea Herriko Etxera sartzen den ala ez. Ulertu du dirulaguntza liburuak berrargitaratzeko aurrerakin gisa baliatzen dela, ondotik Arnagako dendan salduko direnak, baina salmentetako diruak zer bide hartzen duen jakin nahi luke.

Robert Poulou jaunak zehaztu du 1935ean idatzia izan zen liburua argitaratzen ari direla eta 400 ale inprimaturik Arnagako saltokian eskuragarri izanen direla agorrilean. Liburua ez da nehon atzematen eta eskaera handia dago. Salmentaren etekinak naturaltasunez Arnagako Lagunen elkartera joanen da. Elkarteak lotura azkarra du herriko etxearekin, herri biltzarkideak elkarteko administrazio kontseilukide izanik. Azpimarratu du herriaren dirua ongi baliatua dela. Urrian kolokio bat antolatuko da Arnagako Lagunen laguntzarekin eta 1 000 eta 2 000€ artean bideratuko dituztela.

Auzapezak zehaztu du, Poulou jaunak, Arnagako Lagunak elkarte buru gisa, dirulaguntzaren zati bat baliatzen duela liburua argitaratzeko, eta beste zatia elkarteak duela bere gain hartzen. Gehitu du lortu duela 100 ale gehiago urrurik lortzea eta horiek herriari eskainiko zaizkiola. Azaldu du liburu horiek hainbat ekitalditan baliagarri izan daitezkeela, aipagai den liburuaz aparte. Azpimarratu du Arnagako Lagunak elkarte onuragarria dela Arnagarentzat

baina baita herriarentzat ere, eta 2 000€ak ez direla proiektu zehatz batera zuzenduak eta elkarteak bere beharren arabera erabil dezakeela.

Robert Poulou jaunak Arnagako estatutuetako gai garrantzitsua azpimarratu du: elkartea desegingo balitz, baliabide guztiak herriko etxera itzuliko lirateke. Beste elkarte batzuen kasuan, berriz, gelditzen dena antzeko beste elkarte batzuetara joaten da. Arnagako Lagunen elkarteko estatutuek aurreikusten dute baliabideak herriko etxera joan beharko direla. Hori da baliabideak herrian egoteko berme berezia.

008 – GEUZarentzako dirulaguntza.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapezordea, oroitarazi du 2024ko martxoaren 25eko gutun bidez Kanboko GEUZak herriari 162 000€ko dirulaguntza eskatu diola 2024 urterako.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ERABAKI DU, Kanboko GEUZari 162 000 €ko dirulaguntza ematea 2024 urterako.

009 – Eskolen Kutxarentzako dirulaguntza.

ERABAKIA:

Aristizabal andereak, ordea, oroitarazi du Eskolen Kutxako Batzordea 2024ko martxoaren 18an bildu dela 2024ko hasierako aurrekontuari buruzko iritzia emateko.

2023ko amaierako kontuak eta hiru eskola publikoetako ikasle kopuruak kontuan izanik, 5 882,20€ko beharra kalkulatu da. Diru hori herriak emanen die bi eskolei, honela banaturik.

- 4 316,80 € lehen mailarentzat,
- 1 565,40 € ama-eskolarentzat.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ERABAKI DU, 2024 urterako Eskolen Kutxari 5 882,20 €ko dirulaguntza ematea, hiru eskola publikoen artean honela banaturik

- 4 316,80 € lehen mailarentzat,
- 1 565,40 € ama-eskolarentzat.

HITZ HARTZEAK:

Amaia Beyrie andereak ikasleen kopuruak jakin nahi izan ditu.

Maria Aristizabal andereak urte hastapeneko kopuruak eman ditu: 136 ikasle lehen mailan eta 57 ama-eskolan. Azaldu du zenbateko orokorra diferentea izan daitekeela aitzineko urtetik gelditzen zen dirua kontuan hartuz.

Amaia Beyrie andereak aitzineko urteko zenbakiak eskatu dizkio, jakiteko ea aurten kopuruen emendatzea izan den.

Maria Aristizabal andereak erantzun dio ez dela emendatzerik izan.

Amaia Beyrie andereak galdetu du ea Behereko Plazako eskola itxi eta haurrak beste eskoletara mugituz, kopuruen apaltzea berresten denetz.

Maria Aristizabal andereak baieztatu dio Behereko Plazako haur guziak ez direla Gaineko eskoletara aldatu.

010 - Hautetsien urteko sariak.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak oroitarazi du urtero aurkeztu behar dela Herri Biltzarreko hautetsiek eskuratu dituzten orotariko ordain sariak, euro gordinetan, izan herri biltzarrean bertan, sindikatu misto, ekonomia mistoko sozietate, tokiko sozietate publiko nola sozietate horietako baten filialetan dituzten mandatuengatik (Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2123-24-1-1 artikulua).

Elementu horiek hautetsiei helarazi zitzaizkien aurrekontua aztertu aitzin.

Ondorioz, Herri Biltzarrari proposatu dio informazio horiek ukan izana aitortzea.

IKUSIRIK, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra eta bereziki L 2123-24-1-1 artikulua;

IKUSIRIK, hautetsien ordain sariak finkatzen dituen 11-06-2020-005 erabakia,

Aizpuru anderearen aurkezpena entzunik eta erantsirik den dokumentuaren berri ukanik, Herri Biltzarrak aho batez:

AITORTZEN DU, 2023 urterako udal funtzioen betetzeagatik eskuratu diren ordain sarien urteko bilduma aurkeztu zaiola.

HITZ HARTZEAK:

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du sarien emendatzerik izan denetz.

Eliane Aizpuru andereak baieztatu du emendatzea izan dela, zeren puntuaren balioa uztaillaren 1ean goratu delako eta sariak horren arabera kalkulatzeko direlako. Zehaztu du emendatzea % 1,5ekoa zela, hots inflazioa baino apalago, eta langile gehien mailako emendatzea dela.

011 – Finantzak: kredituak atal batetik bestera pasatzea - M57.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapezordea, honako azaldu du:

29-09-2021-066 erabakiarekin Herri Biltzarrak M57 kontularitza araudi berria 2022ko urtarrilaren 1etik erabiltzea onartu zuen

M57 instrukzioak malgutasun handiagoa eskaintzen du, ezen Herri Biltzarrak Auzapezari baimena eman baitiezaioke atal bateko kredituak beste batera pasatzeko, langile kredituak izan ezik, betiere atal bakoitzeko gastu errealean % 7,5eko muga batean (Frantziako LKKOko L.5217-10-6 artikulua).

Hala gertatzen bada, Auzapezak Herri Biltzarrari jakinaraziko dio erabakiaren ondorengo biltzar saioan.

Aizpuru anderearen azalpenak entzun, eztabaidatu eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari 2024ko kontu ekitaldirako, M57a indarrean sartu denetik, atalez ataleko kreditu mugimenduak egiteko, langile gastuetako kredituak izan ezik (012), betiere atal bakoitzeko gastu errealen %7,5eko muga batean.

HITZ HARTZEAK:

Amaia Beyrie andereak puntu hau ulertu ez duela adierazi du. Galdetu du ea horrek eragin duen soilik izapide administratiboetan ala botere gehigarria ematen duen.

Eliane Aizpuru andereak azaldu du aldaketak ez duela botere gehigarrik ematen. Aurrekontua bozkatzera, gastuak atalka banatzen dira. Atal batean funtsak eskas badira, erabaki honek baimentzen du dirua beste atal batetik hartzera, salbu langileria gastuen kasuan, zeinentzat prozedura berezia egin behar baita. Malgutasun horri esker, ordaindu behar diren gastuak ordaintzen ahal dira.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du ea urtero bozkatu beharreko prozedura den.

Auzapezak baietz erantzun dio.

012 – Aurrekontu nagusia: 2022ko emaitzaren esleipena.

ERABAKIA:

Herri biltzarrak 2023ko honako emaitzen berri hartu du:

	Funtzionamendua	Inbertsioak
Sartzeak	7 446 456,52 €	4 600 945,59 €
Gastuak	7 266 031,85 €	4 360 247,48 €
<i>Ekitaldiaren emaitza</i>	<i>180 424,67 €</i>	<i>240 698,11 €</i>
Aurreko emaitzaren berriz hartzea	1 020 104,10 €	0,00 €
2023/12/31ko azken emaitza metatua	1 200 528,77 €	240 698,11 €

2023ko kontu ekitaldiaren emaitza 1 200 528,77 €z positiboa da funtzionamendu atalean, eta 240 698,11 €z positiboa inbertsio atalean.

Aizpuru andereak, finantza gaietarako auzapezordea, honakoa proposatu du:

- 2023ko aurrekontu nagusiko funtzionamendu ataleko emaitza positiboa, hots 1 200 528,77 € honela esleitzea: 717 528,77€ funtzionamendu sartzetara 002 atalera, eta 483,000 € inbertsio sartzetara 1068 artikulura.

- 2023ko aurrekontu nagusiko inbertsio ataleko emaitza positiboa, hots 240 698,11 € inbertsio sartzetara esleitzea, 001 atalera.

Aizpuru anderearen azalpenak entzun, eztabaidatu eta deliberaturik, Herri Biltzarrak gehiengoz:

ONARTU DU:

- 2023ko aurrekontu nagusiko funtzionamendu ataleko emaitza positiboa, hots 1 200 528,77 € honela esleitzea: 717 528,77€ funtzionamendu sartzetara 002 atalera, eta 483,000 € inbertsioetako 1068 artikulura.

- 2023ko aurrekontu nagusiko inbertsio ataleko emaitza positiboa, hots 240 698,11 € inbertsio sartzeetara esleitzea.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak ohartarazi du herriak 1 200 000 € etekin duela funtzionamenduan baina urte bukaeran 700 000 € ezartzen dituela funtzionamenduan eta 500 000 € inbertsioetan hurrengo urterako. Galdetu du ez ote dagoen loturarik zergen emendatzearen eta inbertsioen finantzazioaren artean.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu du kontu-ekitaldiaren emaitza 180 424,67 €koa dela eta ez 1,2 millioi eurokoa, azken zenbateko horrek urte batetik bestera pasatutakoa kontuan hartzen baitu.

Azpimarratu du, urterik urtera pasatuz ere, urteroko etekinak ez dituela 180 000 €ak gainditzen, eta horrek herriko aurrezkien tipitze progresiboa islatzen duela. Oroitarazi du lehenago funtzionamenduko etekin osoa inbertsioetara pasatzen zela, baina gaur egun hori egitea ezinezkoa da. Zehaztu du herria ez dela aberasten eta fiskalitatean eragitea ezinbestekoa dela.

Auzapezaren aburuz herria ez da pobretzen ari. Azaldu du dirua kutxetan egoten dela eta funtzionamendura esleitua dela. Zehaztu du esleipen bat besterik ez dela, eta herriak baduela aukera diru hori berreskuratu eta inbertsioetara bidaltzeko.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak azpimarratu du herria ez dela pobretzen ari, baina halere zergak emendatzen dituela.

Auzapezak azaldu du tradizionalki udalak inflazio tasa aplikatzen diela zerga guztiei, eta honela enpresa eta norbanakoentzat emendatzeak berdinak izaten direla. Aurten arau hori doi bat okertu du, baina orokorrean hala jokatzeko agintean denetik. Zehaztu du emendatzea %2,77era mugatu duela iaz, inflazioa azkarregia zelakoan.

013 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2023ko emaitzaren esleipena.

ERABAKIA:

Herri biltzarrak 2023ko honako emaitzen berri hartu du:

	Funtzionamendua
Sartzeak	11 745,83 €
Gastuak	10 245,00 €
<i>Ekitaldiaren emaitza</i>	<i>1 500,83 €</i>
Aurreko emaitzaren berriz hartzea	31 933,96 €
2023/12/31ko azken emaitza metatua	33 434,79 €

2023ko kontu ekitaldiaren emaitza 33 434,79 €z positiboa da funtzionamendu atalean.

Aizpuru andereak, finantzarako auzapezordea, proposatu du 2023ko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko 33 434,79€ko emaitza positiboa 2024ko hasierako aurrekontuko funtzionamendu sartzetara pasatzea.

Aizpuru anderearen azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU 2023ko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko 33 434,79€ko emaitza positiboa 2024ko hasierako aurrekontuko funtzionamendu sartzetara pasatzea.

014 – Aurrekontu nagusia: 2024ko hasierako aurrekontuaren bozkatzea.

ERABAKIA:

IKUSIRIK, Lurralde Kolektibitateen Frantziako Kode Orokorra

IKUSIRIK, 29-09-2021-066 erabakia, non Herri Biltzarrak M57 kontularitza araudi berria 2022ko urtarrilaren 1etik erabiltzea onartu baitu,

IKUSIRIK, 20240320-008 erabakia, 2024 aurrekontuaren norabideen txostena aurkeztu eta haren inguruko eztabaida izan dela aitortzen duena,

IKUSIRIK, 2024ko martxoaren 27ko finantza batzordearen iritzia,

Kontuan izanik, 2024ko hasierako aurrekontuaren aurkezpen txostena,

Kontuan izanik ondotik egiten den aurkezpen sintetikoa, 2024 hasierako aurrekontua atalez atal orekatua dela:

	Gastuak	Sartzeak
Funtzionamendu atala	8 153 609,00 €	8 153 609,00 €
Inbertsio atala	5 807 853,80 €	5 807 853,80 €
Orotara	13 961 462,80 €	13 961 462,80 €

Ondorioz, Herri Biltzarrari proposatu dio gai honi buruzko erabakia hartzea.

Eztabaidatu eta deliberaturik, Herri Biltzarrak gehiengoz:

ONETSI DU, aurrekontu nagusiko 2024ko hasierako aurrekontua.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy, Peio Etxeleku, Jean-François Lacosta.

HITZ HARTZEAK:

Eliane Aizpuru andereak Zerbitzuetako Zuzendari Nagusia, Auzapezaren idazkaritza, kontularitza zerbitzuak, zerbitzu teknikoak eta Giza baliabideen zerbitzuak eskertu ditu 2024ko hasierako aurrekontua osatzeko egin duten lanarengatik.

Adierazi du biltzarkide guziek ukan dituztela aurrekontuaren azalpen dokumentuak. Dokumentu horiek 2024ko martxoaren 7ko finantza batzordean aurkeztu ziren eta aldeko iritzia ukan zuten.

Aurrekontua 13 961 462,80 €tan orekatzen da: 8 153 609 € funtzionamenduan eta 5 807 853,80 € inbertsioetan.

Aizpuru andereak funtzionamendu ataleko sartzekak aurkeztu ditu: 8 153 609 € eta horietarik 8 033 409 € sartzekak errealak izanik (horietatik 717 528,77 € funtzionamenduko etekinetik pasatuak) eta honela banaturik:

- 002 - Funtzionamenduko emaitzaren berriz hartzea	717 528,77 €
- 013 - kargen lausotzekak.....	30 229,23 €
- 70 - zerbitzuen sartzekak.....	1 020 400,00 €
- 73 - zergak	4 599 491,00 €
- 74 - Zuzkidurak, dirulaguntzak eta parte hartzekak	1 361 700,00 €
- 75 - Kudeaketa arrunteko beste sartzekak	281 060,00 €
- 76 - Finantza etekinak	23 000,00 €

042n, 112 200 €ko sailen arteko ordena eragiketak (84 000 € herriak zuzenean eginiko lanak, 36 200 € dirulaguntzen amortizazioa)

Funtzionamendu sartzekoen eta hauen bilakaeraren estimazioari esker, 2024ko aurrekontuen orekatzeko jokagaiak hauteman ditzakegu. 2024rako, zerga zuzenetatik eskuratu sarrerak honela aurreikusten dira, lehenago bozkatu tasaren arabera. Beste tasak kontuz-kontu baloratuko dira, 2022-2023ko gauzatzeen arabera. Hori da, hain zuzen, 73141 eta 7318, elektrizitate, leku-eskubide, egonaldi-zerga, aparkaleku eta autokarabana kontuen kasua.

Egonaldi-zergari dagokionez, halere honela zehaztu behar da: 360 000 € sartzekak, 110 000 € gastu, hots 250 000 € garbi. (2023an bozkatu tasak: +%10 Departamenduarentzat, +%34 AHTrentzat, hots orotara +%44). %44 horiek Frantziako estatuak hartzen dizkigu.

Higiezin salmenta-zergaren aurreikuspen aurrekontua 2023koaren heinean atxiki omen da, eta ez ditu 2023ko gauzatzeak segitzen.

74. atalari dagokionez, 2023ko proposamen antzekoa egiten dugu.

Funtzionamenduko beste sarrerak zerbitzu jardueratik (1 020 000€) eta alokairuetatik (281 000 €) datoz, aitzineko urteetako gauzapenetan oinarriturik.

Argumentu horiek guztiak 2024 aurrekontu norabideen txostenean garatu ziren.

Honakoak dira 2023ko aurreikuspen aurrekontuarekiko alde nagusienak: kultur izaerako zerbitzuen sariak (+ 70 000 € inguru, eskolaldi ingurukoak (+ 20 000 €) eta Arnagako saltokia (+ 20 000 €).

Aizpuru andereak funtzionamendu ataleko 8 153 609 €ko gastuak aurkeztu ditu, 7 661 609 €ko gastu errealak honela banaturik:

- 011 - karga orokorrak.....	2 252 100,00 €
- 012 - Langileria kargak eta antzekoak.....	3 567 325,00 €
- 014 - etekinen lausotzekak	211 790,00 €
- 023 - inbertsio atalerako transferentzia.....	660 000,00 €
- 65 - Kudeaketa arrunteko beste kargak	872 090,00 €
- 66 - finantza kargak.....	97 304,00 €
- 67 - ez ohiko kargak	1 000,00 €

042n, 492 000 €ko sailen arteko ordena eragiketak

Zenbait doikuntza behera: fluidoak (- 210 000 €), orotariko hornikuntzak eta ekipamendu txikiak (- 410 400 €), AGAZ (- 430 500 €).

Batzuetan, zenbait gorakada ezin dira saihestu:

- Karga orokorrak: Arnaga saltokiko erosketak (+ 20 000 €); asurantzak sariak (+ 11 000 €); TLEP (+ 10 000 €); Euskal Herriko Itzulia (+ 30 000 €); kanpoko zerbitzuak (+ 15 000 €) eta inflazioaren eragina.

- Langileria gastuetan: ohiko emendatzeak, (Adin eta Teknikotasun Lerratzekak), karga sozialen bilakaera, arauzko bilakaerak, 2023ko urtarrilaren leku puntuaren egokitzea

(urte osoko eragina), Frantziako gobernuak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera indize puntuari 5 puntu gehitzeko erabakia, RIFSEEP, eta abar.) langileriaren lekuz aldatzeak, (2024ko kontratatze/2023ko joateek urte osoan eraginik, egin diren edo egiten ari diren kontratazio berriak, batzuetan trantsizioa egiteko bi postu elkarrekin izanik.)

- Bestelako kudeaketa arrunteko kargetan, dirulaguntzak eta berezitasunak garatu dira Aurrekontu Norabideen Txostenean.

Aizpuru andereak inbertsio ataleko gastuak aurkeztu ditu 5 807 853,80 €an orekaturik, 5 650 153,80 €ko inbertsio gastu errealekin, honela banaturik:

- 16 – zorren itzultzea.....	446 000,00 €
- 20 - ibilgetu gorputzgabeak.....	101 245,20 €
- 13 - Inbertsiorako dirulaguntzak.....	283 497,34 €
- 21 - ibilgetu gorputzdunak.....	499 210,74 €
- 23 - bidean diren ibilgetuak.....	3 921 282,64 €
- 27 – beste finantza ibilgetuak.....	398 917,88 €

040an, 112 200 €ko ordena eragiketak eta 041ean, 37 500 €ko ondare eragiketak.

Aizpuru andereak inbertsio ataleko sartzekak aurkeztu ditu 5 807 853,80 €an orekaturik eta 5 278 353,80 €ko sartzekak errealekin, honela banaturik:

- 001 - Inbertsioen egikaritze saldoaren gibelatzea.....	240 698,11 €
- 021 - funtzionamendu ataletiko transferentzia.....	660 000,00 €
- 024 - inbertsioen uzteak.....	4 500,00 €
- 10 - Zuzkidurak, Orotariko Funtsak, Erreserbak.....	933 000,00 €
- 13 - Inbertsiorako dirulaguntzak.....	987 600,13 €
- 16 – Maileguak eta antzeko zorrak.....	2 400 000,00 €
- 27 – itzultzekoak diren aurrerakinak.....	52 555,56 €

040an, atalen arteko 492 000€ko ordena eragiketak eta 041ean 37 500€ko ondare eragiketak (hots 529 000€)

2024 urteko inbertsio programa 5 204 153,80 €koa da, (3 160 175,58 € PB/OK; 1 468 640,66 € PB/OKz kanpo eta 575 637,56 € aitzineko urtean gauzatu ez direnak).

Aipatzekoa 851 000 €ko errepide gastuak ez ohikoak direla, teoriarik aurrekontu hori 600 000 €koa denean. Baina, aurten berantean ziren ekintza batzuk bukatu nahi izan ditugu, hots 138 000 €. Eta 713 000 € proposatzen dugu urteko ekintzentzat.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du ea organoarentzako 171 000 €en itzultzea 2024ko inbertsioen sartzetean sartu ote den.

Eliane Aizpuru andereak baietz erantzun dio.

Philippe Bacardatz jauna ohartu da elektrizitate gastuen beherakada izan dela negozio bolumenaren arabera. Galdetu du ea elektrizitate gastuen %10eko beherakada aurreikusten dutenetz.

Eliane Aizpuru andereak ihardetsi dio iaz aitzineko urteko soberakina transferitu zela.

Philippe Bacardatz jaunak bi gai azpimarratu ditu: lehenik kontsumoaren transferitzea aipatu du, eta ondotik 2024an bukatuko den "salneurrien ezkutua", herriak neurri horren onurak

izan baitzituen aitzineko urtean. Galdetu du ea 2024ko aurrekontu proiektzioan kontuan hartu denetz.

Eliane Aizpuru andereak adierazi du "salneurrien ezkutuari" bukaerak ez duela eragin nabarmenik izan. Zehaztu du iazko elektrizitate gastuak 254 000 €koak zirela eta aurten 220 000 €koak. Azaldu du 2023an administrazio kontuaren %85 kalkulatu zutela, eta hortik 7 500 € kendu. Azpimarratu du aitzineko urtean gastu handiagoa aurreikusi zutela, baina errealtatean 250 000 € baino ez zirela gastatu, hots aurreikuspena baino aise gutxiago.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du hautetsientzako material informatikoa erosi izan denetz.

Eliane Aizpuru andereak baietz erantzun dio, eta tabletak banatzerakoan ezinbestekoa izanen dela formakuntza baten egitea.

Philippe Bacardatz jaunak ohartarazi du, erran denaren kontrara, fluidoak, ura eta elektrizitatea bezalako gastu orokorrak tipitu direla AK eta aurrekontuaren artean, eta ondorioz gauza guztiak ez direla urtero emendatzen.

Eliane Aizpuru andereak azpimarratu du gastu anitz emendatzen direla, bereziki langileriarri lotuak direnak.

Philippe Bacardatz jaunak onartu du batzuk emendatzen direla, baina beste batzuk apaltzen dira.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu du, nahiz eta gastu batzuk arinki apaltzen diren, gastu gehienak emendatzen direla, bereziki hornikuntzak, zerbitzuak, papereria, informatika eta hondakinak. Hondakinen aurrekontua 15 000 € emendatu dela zehaztu du, hornitzailez aldatu ere, eta egoera jendeen oieskeriarri zor zaiola.

Amaia Beyrie andereak galdetu du zer den prebentzio eta segurtasun materialera bideratu den 3 640 €ko zama.

Eliane Aizpuru andereak azaldu du 3 640 €ko eskaera Eudes jaunaren eskaera izan dela, langileen segurtasunarentzat, bereziki hoditeria-harrabotsetatik belarriak babesteko. Hastapenean eskaera 12 620 €koa zen, eta murriztu dugu. Besteak beste CTM segurtasun tresnak erosi dira, desfibrilagailu bat kanpoko kutxa batekin, 4 000 € inguru kostatzen duten belarrientzako-babes doituak.

Amaia Beyrie andereak segurtasun kameren grabaketak ikusteko gelaren antolaketari buruzko berriak eskatu ditu, proiektua zer den galdetuz.

Eliane Aizpuru andereak azaldu du segurtasun kameren grabaketak begiratzeko gela zerga-bilketa zerbitzuaren beheko solairuan izanen dela eta zerga-bilketaren bulegoak lehen solairura pasatuko direla.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du zaintza kameren jarduerari eta erabilerari buruzko bilanik egin denetz.

Auzapezak ihardetsi dio agintek ez dutela eskaera anitz egin kameren begiratzeko. Haatik, jendarmeriaren estatistiken arabera, lurraldean arazoaren kopurua anitz tipitu da. Inguruko beste herri batzuek ere halako inbertsioa egin dute, joera baikorrak ikusirik.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du zenbatekoa den ekipamendu horien mantenu kostua.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak adierazi du oraindik ekipamendu berriak direla, ez dela dena bukatua, eta ondorioz ez dela izan mantenu kosturik. Doikuntza batzuk egin behar izan dira, baina dena martxan da. Mantenu kontratuak datorren irailean hasi beharko luke, baina ez du haren zenbatekoa ezagutzen.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du zergatik kirol zelai sintetikoaren inbertsio gastuak 1,84 milioitik 1,94 milioira emendatu diren. Saiatu da emendatze horren arrazoiak atzematzen, eta iragan Herri Biltzarrean 1,841 milioi aipatu zirela gehitu du.

Auzapezak azaldu du zelai sintetikoaren gastuen emendatzea harmailen azpiko antolamenduari zor zaiola, hori ezinbestekoa baita Departamenduko Kontseiluaren dirulaguntzak ukateko.

Philippe Bacardatz jaunak harmailen azpiko antolamendurako 10 000 €ei buruzko xehetasunak eskatu ditu, eta galdetu du gastu hori aurrekontuko beste lerro batean sartzen denetz.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak zehaztu du 10 000 €ak harmailen edertzeko direla.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du harmailen peko lokalak biltegi gisa erabiliko diren ez.

Auzapezak azaldu du harmailen peko lokalak errugbiko biltegi gisa erabiliko direla, zeren orain arte ezker paretako biltegia erabiltzen baitute. Eta xedea biltegiak modu koherentean banatzea denez, errugbi zelaitik hurbilago dira harmailetakoak.

Philippe Bacardatz jaunak erran du hastapenean planoek errugbi, futbol eta zerbitzu teknikoentzako eremu bereziak aurreikusten zitzutela.

Auzapezak baieztatu du futboleko eta beste erabiltzaileen ekipamenduak harmailen azpira joanen direla herriko etxearekin koordinaturik.

Philippe Bacardatz jaunak ohartarazi du beraz proiektuaren kostua 2 milioitik hurbilago izanen dela 1,8tik baino.

Auzapezak erantzun dio balorazioa besterik ez dela deialdi publiko bidez enpresak lehian ezarri aitzin.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du maiatzean hastekoak diren lanak erran bezala irailerako bukatuak izanen diren ez.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak adierazi du lanentzako deialdia apirilaren 22an abiatuko dela. Lanak ekain erditsutan edo uztail hasieran hasiko lirateke, eta irailaren 15 eta 30 artean bukatuak izan.

Philippe Bacardatz jaunak antzeko galdera egin du pilotaren lokalari buruz. Galdetu du lanak bi urteren gainean egingen diren ez, zeren ohartu baita kostua 239 000 €koa dela, aurreikuspena 388 000 €koa zelarik.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu du pilotaren lokalaren lanak bi urteren gain egingen direla. Sasoia eta gero hasiko dira, hots irailean edo urrian, eta sei hilabete iraun beharko lukete.

Philippe Bacardatz jauna ohartu da bizikleta planarentzat 50 000 € bideratu direla. Inguruko herrietan egin denarekin konparatu du eta adibidez Donibane Lohizunen bizikletak konpontzeko guneak ezarri dituzte, hiri-erditik hurbil, VéloCité programari lotzeko asmoz. Iradoki du Kanbok halako ekipamenduak ezar litezakeela, zeren merkeak baitira eta herriarentzat biziki onuragarriak.

Auzapezak zehaztu du bizikleta planarentzako 50 000 €ak 40 000 € eta 60 000 € dirulaguntza eskaeretatik helduko direla, orotara 100 000 € eskatu baitira. Zehaztu du dirulaguntza bi urtetan banatua dela, 50 000 € aurten eta 50 000 € heldu den urtean.

Vincent Goytino jaunak azaldu du bizikleta planak bideen antolamendua aurreikusten duela, besteak beste errepideetako seinaleetika eta Kanbon bizikletaz ibiltzea akuilatzeke animazio plan bat. Gehitu du bizikletak aparkatzeko ekipamenduak eta Garazin bezalako konponketa-guneak ezarriko direla.

Peio Etxeleku jaunak zerbitzuak eta hautetsia txalotu ditu beren aurkezpenarentzat.

015 – 2024ko Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (PB/OK - AP/CP).

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, finantza gaietarako auzapezordea, honakoa aurkeztu du:

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L2311-3 artikulua arabera, aurrekontu zuzkiduretako inbertsio gastutzat har daitezkeela Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (PB/OK).

M57 kontularitza nomenklaturaren arabera, programa baimenen prozedurak (PB) onar daitezke inbertsio gastuentzat.

2022ko apirilaren 12ko erabakiz lau PB/OK sortu ziren, 2022ko abenduaren 21eko erabakiz horietako bi berrikusi ziren eta bi berri sortu.

2023ko apirilaren 14ko erabakiz lau PB/OK sortu ziren, 2023ko abenduaren 12ko erabakiz horietako hiru berrikusi ziren eta berri bat sortu.

1- 1- Existitzen diren PB/OK:

Gauzatzeen bilana egin behar da, eta beharrezkoa balitz 2024 eta ondoko kontu ekitaldian doitzeak egin: 1. eranskina.

2 – PB/OK berriak:

2024ko hasierako aurrekontuaren prestatzeko zazpi PB/OK berri sortu behar dira, baita horien banaketa 2024-2026 artean: 2. eranskina

Aizpuru anderearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak gehiengoz:

ONETSI DU, 2022 eta 2023an sortu ziren eta 1. eranskinean den PB/OKen bilana, eta 2024tik 2026arteko OKen banaketa berria onetsi du;

ONARTU DU, 2. eranskinean azaltzen denaren arabera, zazpi PB/OK berriren sortzea eta 2024tik 2026arteko OKen banaketa berria.

ZEHAZTU DU, 2024ko ordainketa kredituak 2024ko aurrekontuan agertzen direla dagozkien ekintzetan.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

HITZ HARTZEAK:

Eliane Aizpuru andereak 2022 eta 2023an sortu PB/OK (Programa Baimenak/Ordainketa Kredituak) aurkeztu ditu, baita 2024tik 2026arteko aldietarako proposamenak. Lehengo PB/OKak berrikusi dira, 733 194,81 €ko emendatze batekin, bereziki zelai sintetikoarentzat. Ondorioz, lehenagoko programa baimenen zenbatekoa 10 872 217,20 €koa da.

Ordainketa kredituei dagokienez, 2024rako 2 601 784,46 € gelditzen dira eta 2 800 000 €ko aurreikuspen aurrekontua 2025erako eta 2 886 551,77 2026rako.

PB/OK berriei dagokienez, barne sartzen direlarik harmailen antolamendua, pilotaren egoitza, petanka zelaiaren estaldura, Albeniz biribilgunea, herriko lau etxebizitzaren energia-eraberritzea, eskola patioa eta bizikleta plana, programa baimenak 2 119 391,20 €koak dira. Honako ordainketa kredituak proposatzen dira: 558 391,12 € 2024rako, 1 120 970,08 € 2025erako eta 440 030 € 2026rako. Orotara, 12 991 608,40 € programa baimenentzat eta 3 160 175,58 € ordainketa kredituentzat 2024an.

016 – Programa Baimenak eta aurreikusi ez diren gastuen esparruan Engaiatzeko baimenak.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, finantza gaietarako auzapezordea, honakoa aurkeztu du:

M57an, herri edo elkargoetako biltzar erabakitzaileek Programa Baimenak (PB) edo Engaiamendu Baimenak (EB) bozka ditzakete bi ataletan aurreikusiak izan ez diren gastuentzat.

Atal bakoitzean, zenbatekoak ezin du atalaren gastu errealeen %2a gainditu, egiteke gelditzen direnak eta urte batetik besterako transferentziaz aparte, eta langileria gastuez aparte.

Oharra:

- Ez da PB/EB horiei loturiko ordainketa krediturik aurrekontuan txertatu beharrik, zeren ez aurreikusitako gastuen kapituluek ez baitute aurrekontuaren orekan eragiten,
- Ez aurreikusitako gastuen PB/EB horien kontsumitzeko beharrezkoak diren kredituen transferentziak kredituen suntsikortasunaren %7,5eko langan sartzen dira.

Auzapezak ataletik atalerako transferentziak egiteko erabakiak arauzko izaera duten aurrekontu erabakiak bezala aztertzen dira. Egikaritu ahal izateko, legezotasun kontrolera bideratu behar dira. Auzapezak biltzar erabakitzaileari jakinarazi behar dizkio saioren hurbilenean.

Testuingurua kontuan izanik, Herri Biltzarrari proposatu zaio honakoak irekitzea:

- Urterako programa baimen (PB) bat sortzea 020 atalean, inbertsio saileko gastu errealeen %2ko muga (gauzatzeke gelditzen direnez aparte), hots 98 339,21 €ko zenbatekoa 98 000 € borobildua ;
- Urterako engaiamendu baimen (EB) bat sortzea 022 atalean, funtzionamendu saileko gastu errealeen %2ko muga (gauzatzeke gelditzen direnez aparte), hots 143 185,50 €ko zenbatekoa 143 000 € borobildua;

Kontu ekitaldiaren bukaeran engaiamendurik egin ez bada, PB edo EB zuzkiduren zatia galdua eta deuseztatua izanen da .

Aizpuru anderearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU honakoen irekitzea:

- Urterako programa baimen (PB) bat 020 atalean, inbertsio saileko gastu errearen %2ko mugan (gauzatzeke gelditzen direnez aparte), hots 98 339,21 €ko zenbatekoa 98 000 €ra borobildua ;
- Urterako engaiamendu baimen (EB) bat 022 atalean, funtzionamendu saileko gastu errearen %2ko mugan (gauzatzeke gelditzen direnez aparte), hots 143 185,50 €ko zenbatekoa 143 000 €ra borobildua;

Abstentziora jo dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy..

HITZ HARTZEAK:

Eliane Aizpuru andereak azaldu du prozedura horri esker aginteak diru transferentziak egin ditzakeela ez aurreikusitako gastuetako ataletik sail bereko beste atal batzuetara (22. atala funtzionamenduan eta 20.a inbertsioetan) kontu-ekitaldiaren denbora.

Prozedura horrekin, ezusteko gertakariei aurre egiten ahal zaie PB (Programa Baimenak) edo EB (Engaiamendu Baimenak) ez aurreikusitako gastuen zuzkiduratik, hots 20. ataletik (ez aurreikusitako gastuak) edo 22.etik (engaiamenduak) gastuen engaiamenduak erregistratzeko ataletara. Xede-atala jadanik zuzkidurak dituen bat izan daiteke, edo inbertsio saileko operazio-gastuei dagokiena.

PB edo EB zuzkiduretatik aginteak erabakitzen duen transferentzia horrekin xede-atalean erregistra daitekeen urte anitzeko engaiamenduaren zenbateko gorena emendatzen da. Horrek erran nahi du kontularitza engaiamenduen langa baimena goratzen dela, aurreikusi ez ziren gastuei aurre egin ahal izateko.

017 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2024ko hasierako aurrekontuaren bozkatzea.

ERABAKIA:

IKUSIRIK, Lurralde Kolektibitateen Frantziako Kode Orokorra

IKUSIRIK, 29-09-2021-066 erabakia, non Herri Biltzarrak M57 kontularitza araudi berria 2022ko urtarrilaren 1etik erabiltzea onartu baitu,

IKUSIRIK, 20240320-008 erabakia, 2024 aurrekontuaren norabideen txostena aurkeztu eta haren inguruko eztabaida izan dela aitortzen duena,

IKUSIRIK, 2024ko martxoaren 27ko finantza batzordearen iritzia,

Kontuan izanik, 2024ko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko aurkezpen txostena,

Kontuan izanik ondotik egiten den aurkezpen sintetikoa, funtzionamendu atal bakarra duen 2024ko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia honela orekatzen da

	Gastuak	Sartzeak
Funtzionamendu atala	89 237,00 €	89 237,00 €

Ondorioz, Herri Biltzarrari proposatu dio gai honi buruzko erabakia hartzea.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ONETSI DU, 2024ko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiaren 2024ko hasierako aurrekontua, funtzionamendu atal bakarra duena.

Auzapezak aurrekontuari buruzko saioa bukatutzat eman du zerbitzuak eta bereziki Eliane Aizpuru anderea eskertuz bere aurkezpenaren kalitatearengatik eta PB/OKen kudeaketa konplexuan izan duen dedikazio handiarengatik. Azpimarratu du bozkatu berri den inbertsio aurrekontua, 5,2 milioi eurokoa, Kanbon sekula bozkatu den handiena dela. Eskerrak eman ditu eta adierazi du emaitzak urte bukaeran administrazio kontuaren azterketan baloratuko direla.

Auzapezak Herri Biltzarraren saioa 21:39an hetsi du.

Jean-Paul EYHERACHAR
Saioko idazkaria

Christian DEVEZE
Kanboko Auzapeza